

Euskararen Gaitasun Agiria

EGA

2001eko martxoaren 31koa A eredia

1. deitura:

2. deitura:

Izena:

NA zenbakia:

Euskaltegia:

AZTERKETAKO ARIKETEN PUNTUAZIOA ETA DENBORA BANAKETA

Ahozkoaren ulermena ariketa burutu ondoren, **2 ordu eta 20 minutu** dituzu azterketa hau egiteko. Denbora nahi duzun moduan banatu eta azterketa nahi duzun ordenan egin dezakezu baina hona, ariketen puntuazioekin batera, aztertzailleek pentsatutako denbora banaketa:

Azpiatala	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez	Proposatutako denbora
Azterketaren formatua gainbegiratzeko	---	---	3 min.
1. IDAZLANA			
Idazlana	25	15	55 min.
Ortografia	5	1	
2. ESALDIAK BERRIDATZI	5	2,5	25 min.
3. SINONIMOAK EMAN	5	2,5	
4. IRAKURMENA	10	5	45 min.
Egindako lana gainbegiratzeko	---	---	12 min.
Guztira	50	29	2 h 20.

Idatz ezazu **garbi eta tintaz**: aztertzailleek ez dute zuzenduko irakurri ezin dena. Ariketa guztietan atera behar da gutxieneko puntuazioa azterketa gainditzeko.

AHOZKOAREN ULERMENA I

1. *Zer esan nahi du sherpa hitzak?*
 - a) Tibeteko biztanlea.
 - b) Ekialdean jatorria duena.
 - c) Tibet mendebaldeko jendea.
 - d) Mendiko zamaria.
2. *Zer dio sherpen kopuruari buruz?*
 - a) Guztira 2.000 baino ez direla.
 - b) 2.000 Nepalen bizi direla eta gainontzekoak munduan zehar barreiatuak daudela.
 - c) 35.000 direla guztira.
 - d) Gehienak Nepalen bizi direla, 35.000.
3. *Zerk eman zion sherpa herriari bizimodua eta ogibidea aldatzeko aukera?*
 - a) Mendebaldetarrek hango mendiak ezagutu ahal izateko bertakoen beharra izateak.
 - b) Mendebaldetarrek lurralde hauetan burututako konkistak.
 - c) Mendebaldetarrek Himalaya inguruetan ezarritako kulturak.
 - d) Himalayako mendi garaiak ezagutzeko eta igotzeko sortu zitzaizkien nahiak eta irrikak.
4. *Zein izan zen sherpen bilakaera mendiko lanari zegokionez?*
 - a) Everestera inor baino lehenago iritsi ziren.
 - b) Zamari huts izatetik mendiak igotzeko teknika aurreratuenak asmatzera iritsi ziren.
 - c) Mendiko zamari izateaz gainera berehala ekin zioten lan teknikoak egiteari ere.
 - d) Zama lanak egiteari utzi eta mendiko tekniketan trebatu ziren.
5. *Nori ematen zaio sirdar izena?*
 - a) Beren indarrez eta trebezia mendirik garaienak igo dituzten sherpei.
 - b) GUINNESS errekorren liburuan agertzen direnei.
 - c) Sherpek mendebaldeko jarritako izena da.
 - d) Mendian indartsuak, altuerarako aproposak eta nortasun handikoak direnei.

Aukera itzazu erantzun egokiak eta jar itzazu dagozkien letrak ondoko laukietan:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

AHOZKOAREN ULERMENA II

6. *Zer dio gailurrera sarrien iritsi den sherpak?*
- a) Jada mendiko gidari baino gehiago abenturazalea dela.
 - b) Seme-alabentzat mendiko gidari izateko heziketa eta prestakuntza hobe nahi dituela.
 - c) Berarentzat Everest gailurrera igotzea ez dela abentura bat baino.
 - d) Beraren iritziz, Everestera igotzea ez dela abentura.
7. *Zertarako erabiltzen zuten garai batean Namche-ko bidea?*
- a) Gatza eta ardikia eraman eta artoa eta artoa ekartzeko.
 - b) Indiatik ekarritako artoa eta artoa erateko.
 - c) Yak izeneko animaliak hazteko.
 - d) Artoa eta artoa eraman eta gatza eta ardikia ekartzeko.
8. *Paraje hartan ba al da dendarik?*
- a) Bai, bertako gozokiak eta kafea saltzen dira batik batik.
 - b) Bai, jantzi marka ezagunak saltzen dituztenak batik batik.
 - c) Bai, horien artean ziber-kafe bat ere bada.
 - d) Bai, baina dendak baino gehiago mendizaleen aterpe dira.
9. *Zer gertatzen da Sagarmatha-ko Parke Nazionalan?*
- a) Bisitarien kopurua mugatu beharra izan dutela.
 - b) 30 urteren buruan 20tik 12.000ra gehitu direla bisitariak.
 - c) 30 urteren buruan bisitarien kopuruak gora egin duela, azken urteotan salbu.
 - d) Bisitarien salneurriak 20tik 12.000ra gehitu direla.
10. *Zer dio mendebaldeko mendizaleen ekarpenei buruz?*
- a) Sherpen kultura desagertarazten ari direla.
 - b) Zenbait zerbitzu sortzeko asmoak hitzetan geratu direla.
 - c) Zenbait zerbitzu sortzea bultzatu dutela.
 - d) Sherpa herria bere ohiko bizimodua uztera bultzatu dutela.

Aukera itzazu erantzun egokiak eta jar itzazu dagozkien letrak ondoko laukietan:

6	7	8	9	10
---	---	---	---	----

1. IDAZLANA

1. *Argi idatzi behar da, eta al bait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
 - a) *gaiaren eraketa eta garapena;*
 - b) *hizkuntz aberastasuna eta zehaztasuna;*
 - c) *zuzentasuna.*
4. *Lehen orrialde hau gidoia egiteko, apunteak biltzeko... erabil dezakezu. Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko laguntza moduan dossier bana eta puntu batzuk (galderak, gogoetak, iritziak...) ere badituzu. Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik egin dezakezu.*

ZIRRIBORROETARAKO ORRIA

GAIA GAURKO GAZTEAK, NOLAKOAK?



Quo aldizkarietik

Gazte askoren helburua: gurasoen etxetik ahalik eta beranduen irtetea.

DIARIO VASCO egunkarietik

Gazteen interesgune nagusiak: familia, lagunartea, lana, dirua, gaua, aisialdia...


14-24 urteko gazteak

► Jokabideak

%44	asteburuetan goizaldeko 4:00etan etxera
%41ek	astrologian, boroskopoetan sinesten dute
%14k	garrantzia ematen diote erlijioari
%79	sexu harreman libreen alde
%82	pozik daude daramaten bizimoduarekin
%65	drogekin arduratuta daude

► Hurrengo drogetakoren bat hartu dutenen ehunekoak

%93,9k	Alkobola
%70,7k	Tabakoa
%62,4k	Cannabis-a
%18,8k	Anfetaminak
%12,7k	Kokaina
%10,7k	Diseinuzkoak



MUY INTERESANTE, 2000ko martxoan

Politikak, Parlamentuak, sindikatuek... balorazio eskasa gazteen artean. Politikan, plural-tasuna nagusi.

Moda eta markei atxikita bizi omen dira, baina etengabe dibertitu "beharrari" ere.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Gazteak, inkestetan agertzen diren bezalakoak ote?
- Geroak kezkatzen al du gaztea?
- Gurasoen belaunalditik gaurkora alde handirik bai?
- Nahi dutena egiten ohituta?
- Zein da gurasoen etxetik alde egiteko adin egokia?

GAIA HIZKUNTZAK IKASTEA

HIZKUNTZEN IKASKETA ZENBAKITA EAE-N			
Honakoak hiriburuetako Hizkuntza Eskola Ofizialetan 1998-99 ikasturteko matrikulazio ofizialeko datuak dira. Orain dela lauzpabost urtekoekin alderatuta daude ondoren.			
Non	1998-99ko datuak hizkuntzaz hizkuntza	1998-99ko datuak guztira	1995-96ko datuak guztira*
► Bilbo	<ul style="list-style-type: none"> • Alemana: 731 • Atzeritarrentzako gaztelera: 318 • Euskara: 1.456 • Frantsesa: 1.537 • Ingelesa: 3.765 • Errusiera: 99 	7.906	7.090
► Donostia	<ul style="list-style-type: none"> • Alemana: 302 • Euskara: 628 • Frantsesa: 827 • Ingelesa: 1.076 	2.833	2.734
► Gasteiz	<ul style="list-style-type: none"> • Alemana: 454 • Euskara: 724 • Frantsesa: 490 • Ingelesa: 1.444 	3.112	2.379

Iturria: ARGA, 2000ko martxo.

"JAR EZAZU
HIZKUNTZA
BAT ZEURE
KURRIKU-
LUMEAN,
BESTELA JAI
DAUKAZU".

Kontu handiz aukeratu behar da atzerrira nora joan, nola eta zein baldintzetan; bestela, porrota izango da ondorioa.

Ingelesko akademiak perretxikoak bezala ugaritzen ari dira hiri eta herrietan.

Zergatik txiki-txikitatik akademietara?

- Lanerako beharrezkoa?
- Bidaiatzeko beharrezkoa?
- Ikastetxeetan ikasitakoa ez da nabikoa?
- Eskolako azterketak ezin gainditu?
- Ahalik eta lasterren ikasi nahi?

Ama hizkuntzaz gain, hizkuntza bat edo gehiago jakinez gero, erraztasun handiagoa beste bat ikasteko.

"26 urte nituela hasi nintzen ingelesa ikasten. Ahalegin, neke eta diru asko gastatu ondoren, ez dut maila handirik lortu. Beranduegi hasi naiz".



Iturria: ARGA, 2000ko martxo.

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Hizkuntzak ikastea: beharra ala moda?
- Zergatik nagusi ingelesa? Eta frantsesa? Eta alemana?
- Ahaleginak eta ordaindu behar den diruak merezi ote?
- Atzerrira hizkuntzak ikastera: esperientziak.
- Zenbait hizkuntza jakin gabe, ezjakin?

2. ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatzi behar da horri lotuta. Adibidez:

...takoan *etorri*takoan

*Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina **beti ere esaldi bakar bat osatuz**. Adibidea:*

0. Etxetik irten eta berehala hasi zuen eurria.

Etxetik irten bezain laster hasi zuen eurria.

1. Adinean aurrera egiteak ekarriko ahal dizkigu heldutasuna eta alaitasuna, behintzat!

..... ekar
..... !

2. Gu biok makina bat miseria ikusitakoak gara gazte denboran.

Zuk bezala
..... •

3. Edo agindutakoa bete edo zure kontura bizi; horixe izango da zure aukera bakarra hemendik aurrera.

..... ezean
..... beste •

4. Mutilak zutik ere ezin ziren egon; horrela etorri ziren menditik.

..... gauza
..... •

5. Egiten duen eguraldia egiten duela, ez da ikaratzten. Horrelakoxea da kale kantoiko eskalea.

..... nahiz
..... horietakoa •

6. Mespretxua mingarria da, gorrotoa bezain mingarria, jasan behar duenarentzat.

.....
..... ematen dio •

7. Gaztainei heltzen ari diren neurrian eskola ireki egiten zaie.

..... ahala •

8. Nola bururatu zaizu horrenbeste lan hartzea, gero estu eta larri ibili behar baduzu?
tzekotan
 ere!
9. Hiritar guztiek jaso ote dute udalak igorritako informazioa?
 Izango ote da
?
10. Esaten dutenez, urte berria ez da zaharra baino hobea izango, ekonomiari dagokio-
 nez behintzat.
 omen

3. SINONIMOAK EMAN

Ondoko esaldietan markatuta dauden hitzen sinonimo egoki bana jarri behar duzu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera jarriaz. Sinonimo bat baino gehiago eman ez gero, denek izan behar dute zuzenak.

1. Familiako **preuari** zegokion lur-sail haiekin zer egin behar zen erabakitzea.
2. Norberak dituen printzipio **irmoenak** ere kolokan jartzen ditu horrelako gertakari krudel batek.
3. Hitz horiek ulertzeko medikuntzan **aditua** izan behar da.
4. Denbora luzea neraman dendan eta bertako gizonak zerbait osteko asmoa nuela pentsatu zuen, **antza**
5. Kazetariak jakin beharko lukete zalantzarik ez dagoen informazioei egiaren tankera ematea ez dela **bidezkoa**
6. Zelai aldapatsuan behera **labainka** jaisten jolasten ginen gaztetan.
7. Menpekoek ez zioten **txintik** ere esaten nagusiari, hain zuen jenio bizia!
8. Eguzkiak lagundu zigun sortalderako bidea **topatzen**
9. Denok izango dugu gogoan eta bihotzean hura **zendu** zeneko eguna.
10. **Ezbaian** bezala geratu nintzen, nora jo jakin gabe.

4. IRAKURMENA

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; kalifikazioa erantzun zuzenena izango da.

ESPAZIOA

Espazioa ederragoa da bertan jartzen dena baino. Ez da onena izango, baina bai, seguru aski, Eduardo Txillidaren lanaren atzean dagoen filosofia ongien zehazten duten esaldietako bat.

Behin Patricio Etxeberria lantegiko sutegian, Legazpin, ikertu ahal izan zuen berak deitzen duen “espazioaren intuizio” horietako bat. Atsedean hartzen ari zen eta, bere aurrean, makina handi bat jaso eta tokiz aldatzeko lanean ari zen garabi bat. “Lantegi guztiko espazioak makina hura lurraren kontra zapaldu egiten zuela iruditu zitzaidan; bat-batean kableak tenkatu eta garabiak lurretik altxatu zuen makina hura. Orduan ikusi nuen nola sartzan zen espazioa makinaren azpian, makina bera altxatzeko”.

Hauxe dugu Txillidaren ideia funtsezkoena: hutsuneek eta hutsarteek jokatzan dute materiarekin, haiek dira protagonistak. Beraz, berarentzat hutsunea da garrantzitsuena, ez eskulturak balio ez duelako, baizik eta hutsunea bera delako eskultura onena.

Txillidaren ibilbide artistikorako Parisen emandako urteak funtsezkoak izan ziren. Hara joan zen 1948an, Madrilen egiten ari zen arkitektura ikasketak utzita eta lehen eskulturak egiten hasita. Futbola ere utzita zuen, Errealeko atezaina zela izandako lesio edo min larriak horretara behartuta. Parisen egunero joango zen Louvrera, antzinako eskultura grekoek miretsita, eta horien eragin nabaria izango dute orduko lanek, Urgullen dagoen *Torso* deritzanak, kasurako. Baina eragin nabariegia nonbait. “Argi hark min egin zidan. Jarraitu izan banio ez nukeen egingo egin dudana”.

1951n Donostiara itzuli eta Hernanin hasi zen lanean, Manuel Illarramendiren sutegian. Bertan konturatuko da euskalduna dela, eta hori ez dela izena bakarrik, zer edo zer sakonagoa baizik. *Argi beltza* deituko zuena aurkitu zuen burdinan, suan, eta argi horren itzalean ekin zion lanari: natura hasieran, ametsak gero, eta hutsarteak; lan monumentalak, hilarriak, grabitazioak, erantzukizun politikoaren inguruko irudiak, grabatuak... Burdina, zura, harria, alabastroa, marmola...

Badago ohitura bat eskultoreen lana materialen eta gaien arabera sailkatzekoa, baina hori nekeza da Txillidaren kasuan; are gehiago, alferrekoa. Materiala baino garrantzitsuagoa da ideia berarentzat, forma baino gehiago formen arteko elkarrizketa. Hortik dator ekonomia, hortik irudien sotiltasuna.

Txillidaren abiapuntua filosofia da. Mundua mundu denetik gizakiek egin dituzten galderak egiten dizkio bere buruari, erantzunaren zain edo eske geratu gabe. Hortik jaiotzen dira berak lurrinak deitzen dituenak, aurreintuizioak, alegia, eta hor jaiotzen da artelana, nahiz eta artistaren gogoan soilik izan. “Ez dut bidea ezagutzen, baina bai lurrina”. Hortik aurrera dena da lana.

Kode batzuk badaude: zuria eta beltza erabiliko ditu marrazkietan —koloreak indarra kenduko lioke ideiari— eta zura eta burdina bereziki eskulturretan. Zuria espazioa izaten da eta beltza, materia. Baina “materia espazio geldoa da, eta espazioa materia azkarra”. Hau da, dena da espazioa, abiadura da aldatzen dena. “Espazioa, espazioa, espazioa, hori izan da nik bizitza osoan landu dudana gai bakarra”.

Gizon ikasia eta jantzia, erlijiosoa, eta beti jakin-gose; mistikoen lana —San Frantzisko Asiskoa, San Juan Gurutzekoa, Henri Suso, Jacob Boheme— ondo ezagutzen du, eta Rimbaud, Baudelaire, edo Cioran-en poesia miresten; Heidegger eta Bergson-en filosofia berrirakurtzen du, eta Bach, beti Bach, entzuten.

Nahiz eta milaka eskultura, grabatu eta irudi sortu dituen, bi dira bereziki esanguratsua: Donostiako *Haize Orrazia* bata eta Tindayako mendian —Fuerteventurako irla— egin nahi duen *Mendi hutsa* edo hustuaren proiektua bestea.

Donostiako Igeldo azpian dagoen hiru piezako eskultura multzoa izango da jendeak ongien ezagutuko duen lana. Eztabaidagarria eta kritikatu garai batean, Donostiaren sinboloa izateko ohorea ere izan zuen noizbait, baina gaur egun, ahaztu samartua dirudi. Badu lan handien itzal berezi eta, aldi berean, zehaztezin hori.

Tindaya mendi sakratua barrutik husteko proiektua du Txillidak eta egitasmo hau irudika daitekeen ederrenetakoa da. Handiustea, nahi bada, baina ederra inondik ere. Hutsunea bera eskultura eta monumentu bihurtzeko asmoak garbi adierazten du artistaren pentsaeraren norakoa.

Behin lagun zuen poeta batek honela esan omen zion: “Ez hitz egin jendearekin buruan dituzun ideia horiei buruz, lapurtu egingo dizkizute eta”. Eta ez du hitz egiten. Haiekin eskulturak egiten ditu.

Alberto Barandiaran
EGUNKARIA, 2000ko urtarrilaren 9a.
(Moldatua)

Ondoko hamar galderetan, aukera ezazu bakoitzean erantzunik egokiena eta dagokion letra koadro honetan ipini.

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

1. *“Espazioa ederragoa da bertan jartzen dena baino” esaldia(k)...*
 - a) Txillidak bere artelanen filosofia zehazteko behin eta berriro erabiltzen du.
 - b) ez da onena Txillidaren artelanen filosofia zehazteko.
 - c) izan da Txillidak egindako aitoren onena.
 - d) ongi zehazten du Txillidaren artelanen filosofia.

2. *Zein da Txillidaren ideia nagusia?*
 - a) Hutsarteek materiarekin jokatzen dute, eta haiek dira nagusi.
 - b) Hutsarteen eta materiaren arteko jokoak, azkeneko hau delarik nagusi.
 - c) Materia protagonista bihurtzen da hutsarteekin jokoan jartzean.
 - d) Hutsuneak erakusten du ederki nola jokatu materiarekin.

3. *Zer dio Txillidaren hasierako lanei buruz?*
 - a) Louvreko margo grekoen oso antzekoak direla.
 - b) Louvren antzinako eskultura grekoen ondoan mirets daitezkeela.
 - c) Greziako eskultura klasikoen eragina dutela.
 - d) Louvreko eskultura grekoak imitatuz eginak daudela.

4. *Zer aurkitu zuen 1951n Euskal Herrira itzuli zenean?*
 - a) Euskaldun izatea azalekoa dela, burdinar eta suan dagoen *argi beltza* bezalakoa.
 - b) Lanari heltzeko suan eta burdinar dagoen argia.
 - c) Suak burdinari ezartzen dion argi beltzaren itzala.
 - d) Burdinak sutan jartzen denean hartzen duen *argi beltza*.

5. *Txillidaren lana sailkatzerakoan...*
 - a) ideiek materialek baino garrantzi handiagoa dute.
 - b) materialek ez ezik ideiek ere garrantzi handia hartzen dute.
 - c) ideiek ez bezalako garrantzia dute materialek.
 - d) materialek adinako garrantzia dute ideiek.

6. *Zein da Txillidak artelanak sortzeko egiten duen ibilbidea?*
- a) Bere buruari egindako galderetatik aurreintuzioak sortzen dira eta hortik aurrera lana hasten da.
 - b) Bere buruari egindako galderetatik artelana sortzen da, baina lurrinez estalia bezala, eta askotan bidea ezagutzea ezinezko egiten zaio.
 - c) Gizakiek, mundua mundu denetik, egin dituzten galdera guztiei artelanen bidez erantzuten diete.
 - d) Bere buruari egiten dizkion galderak zuzenean eramaten dute eskulturak egitera.
7. *Zer dio marrazkietako koloreei buruz?*
- a) Zuria espazioa dela eta beltzak indarra ematen diola espazioan jartzen den ideiarri.
 - b) Kolore indartsuegiak ideien indarraren kalterako direla.
 - c) Zuria eta beltza gairi, gainontzeko koloreak ideien indarraren kalterako direla.
 - d) Zuria eta beltza ez ezik, zenbait ideia indartzeko, gainontzeko koloreak ere erabiltzen dituela.
8. *Zertarako aipatzen ditu santuen, idazleen eta musikarien izenak?*
- a) Gizon jantzia dela azaltzeko.
 - b) Txillidaren ezaugarri pertsonalak azaltzeko: fededuna, jakituna eta jakinguraz betea.
 - c) Txillidaren ezaugarri pertsonalak adierazteko: erlijiosoa, poeta eta filosofoa.
 - d) Bere artelanen ezaugarriak azaltzeko: erlijioa, jakinduria eta jakin-gosea.
9. *Zer gertatu da Haize Orrazia izeneko artelanarekin?*
- a) Orain arte eztabaidatua izan bada, orain kritikatu ere badela.
 - b) Donostiako sinbolo izan bazen ere, orain ahaztua eta zapuztua dela.
 - c) Denbora joan ahala, Donostiako sinbolo gisa garrantzia galtzen ari dela.
 - d) Lan handien itzala duela eta Donostiako sinbolo izateko ohorea ere bai.
10. *Tenerifeko Tindaya izeneko tokian...*
- a) mendi sakratua hustu du eta espazioa bera bihurtu du eskultura.
 - b) mendi sakratua hustu eta hutsartea eskulturaz bete nahi du.
 - c) mendi osoa erabiltzeak bere ezintasuna adierazten du.
 - d) mendia hustu eta hutsartea bihurtu nahi du eskultura.

AZTERTZAILEAK ERABILTZEKO

			Erreferentzia		Azterketa honetan lorturikoa
AHOZKOAREN ULERMENA: guztira			5		<input type="text"/>
IDAZLANA BERA	Edukia *		0-7	25	<input type="text"/>
	Moldea *		0-8		
	Zuzentasuna *		0-10		
ORTOGRAFIA			5		<input type="text"/>
ESALDIAK BERRIDATZI			5		<input type="text"/>
SINONIMOAK			5		<input type="text"/>
IRAKURMENA			5		<input type="text"/>

* Adierazi gurutze edo zenbaki batez zein alderdi ez duen gainditu.

Kalifikatzeko irizpideak

Aztertzaileentzako jardunbidea liburuko azalpenen eta oharren sintesia.

IDAZLANA

EDUKIA (0-7) puntu. Honetan adierazia kalifikatuko da, hots, garatzeko eskaintako gaia zein neurritan osatu den:

- Gaiarekin lotura duten / ez duten alderdien garapena.
- Argudio eta adibide asko / gutxi.
- Gutxieneko hitz kopurua.

MOLDEA (0-8) puntu. Adierazpena kalifikatuko da, hots, edukia azaltzeko moldearen kalitatea:

- Egitura aberatsak / sinpleak.
- Lexiko zehatza eta adierazkorra / desegokia edo urria.
- Ideien eta egituren arteko kohesioa, lotura.
- Idazlanaren egituraketa orokorra, paragrafoen antolamendua.

ZUZENTASUNA (0-10) puntu. Hizkuntz akats nabarmenen araberako kalifikazioa, hots, joskerazko zuzentasuna:

- Deklinabidean: kasu atzizkiak zuzen / oker erabiltzea.
- Aditz mailakoa.
- Perpausen egituraketa.

Hiru alderdi horietakoren batean nabarmenki huts eginez gero edota, oro har, hiruretan maila kaxkarra erakutsiz gero, ezingo da *Idazlana* gaindituztat eman.

ORTOGRAFIA

5	Oso zuzena
3-4	Akats ez oso larriak
1-2	Garrantzi handiko akatsak
0,1-1	Oinarrizkoak / Oso larriak

ESALDIAK BERRIDATZI

Berridatzi den esaldiak honako baldintzak bete behar ditu zuzentzat eman ahal izateko:

- Esaldi bakarra atera behar da berridazketaren ondorioz.
- Eredutzat ematen den esaldiaren zentzua osorik jaso behar du.
- Eskaintzen den "bidea"ri jarraituz osatua izan behar du, eta ez beste bide batetik eratua.
- Gramatikaren aldetik zuzena izan behar du, osorik.
- Komatxoak-edo erabili badira, horiek adierazten duten elementuen ordenak eta puntuazioak ere zuzenak izan behar dute.
- Ortografia zuzena izan behar du.

SINONIMOAK

Ontzat hartu ahal izateko:

- Testuingurua kontuan hartuta, egokia izatea.
- Bat baino gehiago jarritz gero, denek izan behar dute zuzenak.
- Atzizkiduna bada, atzizki eta guzti emana.

EGA

AZTERKETA IDATZIA

2001eko martxoaren 31koa

Eredua

A

**ENTZUTEZKO ULERMENA - TESTUA
ARIKETEN GILTZAK**

AHOZKOAREN ULERMENA I

Everest gailurrera iritsi den gure inguruko mendizaleen ondoan ohikoa da guretzat izen ezezagunagoa duen sherpa bat ere agertzea. Hauei buruzkoa da oraingo jarduntxoa.

Uste denez sherpa klanetako lehen buruzagiek Kham eskualdean dute jatorria, Tibet ekialdean. *Sherpa* hitzak esanahi hori du: ekialdeko jendea edo ekialdetik etorri dena. Aspaldi batean Khumbu haranean geratu ziren, Sagarmatha edo Everest amaren altzoan. Mende honetan Nepaleko beste hainbat eskualdetara eta Indiara emigratu dute. Gutxi gorabehera 35.000 sherpa bizi dira egun Nepalen, eta beste 2.000 mundu zabaleko beste herrialde batzuetan barreiaturik.

Mendiak betidanik eta guztiz baldintzatu du sherpa herriaren bizimodua: aurreko mendeetan orografiak nekazaritzara eta abeltzaintzara zuzendu zituelako, eta mende honetan mendebaldeko herrien handinahi alpinoak —hasierako espedizioak nazio konkistak ziren ia— bertako biztanleen beharra izan duelako. Mendebaldetarron bizimodu aseak Himalayara joateko abagunea eman dio mendizale askori, Pirinioetatik edo Alpeetatik haraindiko zerumugak ezagutzeko aukera. Sherpa herriari, berriz, nekazaritza eta abeltzaintza laga eta ogia beste bide batzuetatik ateratzeko aukera sortu zaio, mendeak aurrera egin ahala. Apurka-apurka, mendiko langile bihurtu dira sherpak; beharginak, zuzenago esanda, beharrak bultzatutako mendizaleak.

Espedizioak ugalduz joan ziren heinean, langile perfektuak bihurtu ziren sherpak: altueran bizitzen ohituak, zama izugarriak kopetatik eta bizkarretik zintzilik eramaten zailduak, leialak, esanekoak... Zama beheko kanpamentura eramaten ez ezik, altuerako lan teknikoak egiten ere laster hasi ziren —sokak jarri, kanpamentuak antolatu...— eta, jakina, mendebaldeko mendizaleekin batera gailurretara iristen ere bai. Mendizaleek beti izan zituzten estimuan, eta sherpak ere, apurka-apurka, euren lanaren balioaz jabetuz joan ziren. Everest igo dutenetatik lautik bat sherpa izan da, eta munduko tontorrik garaienean hil direnetatik hirutik bat ere bai.

Mendiak mailak ezartzen ditu sherpen artean ere: indartsuenak, altueran ongien moldatzen direnak, nortasun handienekoak *sirdar* bihurtzen dira. Hautapen naturalaren poderioz, sirdarrek ospea eta sona eurenganartzen dute mendebaldetarren artean, eta haietako batzuk, gainera, *Guinness* errekorren liburura igarotzen dira.

AHOZKOAREN ULERMENA II

Aipatu ditugun *sirdar* hauek dira, beraz, herri honetan ospe eta sona handiena dutenak eta hauetako batzuek beren kritikak ere isuri dituzte mendebaldeko espedizioei dagokienez. Hemen Appa izeneko sherpa batenak aipatuko ditugu. Nor den gizon hau? Everest gailurrera hamar bider igo den sherpa. Bere asmoa munduko tontorra hamalau aldiz igotzea da. Apparen arabera “gidari sherpak gaizki ordainduta daude, gidari atzerritarren eta sherpen artean aldeak handiegiak dira; diru ordainak parekoa izan beharko luke”. Hala ere, mendebaldeko jendeari laguntza ematen ari dela eta eurekiko hartu-emanak mesederako dela esaten du. Beraren ustez, Everestera igotzea lana da, ez abentura eta ez ezer. Ez luke inondik ere nahi bere lau seme-alabak mendi gidariak izatea; heziketa ona jasotzea besterik ez du nahi.

Atzerritarren eragina bortitza izan da zentzu guztietan. Merkatu bihurtu dira toki asko: mendebaldeko platerak merke eskaintzen dituzte, lentejak, arroza eta yak manteka tibetarrarekin batera. Janzkeran ere gero eta gehiago ikusten dira Adidas, Nike, Lewis eta bestelako marka ezagunak.

Goi lurretako eta haranaren behealdeko herritarren arteko salerosketak eta hartu-emanak Namcheko igandeko merkatuan izaten dira nagusiki, 3.700 metrotara. Namche-ko bidea mendeetan erabili izan dute tibetarrek; gatza eta lehortutako ardi haragia jaisten zuten eta arrozarekin eta artoarekin itzultzen ziren Indiatik. Gaur egun, berriz, mendizale askok eta askok egiten du bide hori Everesteko *trekking* ospetsuan.

Dauden ehun etxe eskasak aterpe bihurtu dira, trekkingzale eta espedizio-etako kideen nekeari atsedean emateko. Dendak ere ugaitu egin dira, hauen artean gozodendak eta berriki zabaldu duten ziber-kafea ere bai. Aipatzen ari garen Namche herri honetan 1.000 lagun bizi dira neguan eta monzoiak gogor astintzen duenean. Martxotik maiatzera eta irailetik azarora, ordea, kopuru hori zortzi bider handiagoa da. Hona hemen bi datu: 1964an 20 atzerritarrek bisitatu zuten Sagarmathako Parke Nazionala. 30 urte geroago, 1994an, 12.000 izan ziren bisitariak, eta azken urteotan gora egin du kopuru horrek.

Sherpen kultura mito, kondaira eta budismoaren eraginpean hazi da mendez mende. Azken hamarkadetan ugari dira mendebaldeko mendizaleek bultzaturik gauzatu diren egitasmoak: eskolak, erietxeak eta ekologia programak, besteak beste. Horrek haurrak hiriko eskoletara edo sherpak Katmandura eramanez lan hobeen bila eta, apurka-apurka, kultura hori antzinako bizimoldetik aldenduz doa.

Ramon Olasagasti
Egunkaria, 2000 ko apirilaren 21a
(MOLDATUA)

AHOZKOAREN ULERMENA

A eredua	1 B	2 D	3 A	4 C	5 D
	6 D	7 A	8 C	9 B	10 C

ESALDIAK BERRIDATZI (Erantzun-ereduak)

- Adinean aurrera egiteak **ekar** diezazkigula heldutasuna eta alaitasuna, behintzat!
- Zuk bezala** neuk ere makina bat miseria ikusi dut gazte denboran.
- Agindutakoa bete **ezean**, zeure kontura bizitzea (bizi) **beste** aukerarik ez duzu izango hemendik aurrera.
- Mutilak zutik egoteko (ere) **gauza** ez zirela etorri ziren menditik.
- Eguraldi ona **nahiz** txarra egin, ikaratzen ez den / diren **horietakoa** da kale kantoiko eskalea.
- Mespretxuak gorrotoak adina (bezainbeste, beste...) min **ematen dio** jasan behar duenari.
- Gaztainei heldu **ahala** oskola ireki egiten zaie.
- Gero estu eta larri ibiltzekotan, horrenbeste lan hartzea bururatzea / bururatu **ere!**
- Izango ote da** udalak igorritako informazioa jaso ez duenik? / **Izango ote da** herritarrik, udalak igorritako informazioa jaso ez duenik?
- Urte berria ez **omen** da zaharra baino hobea izango, ekonomiari dagokionez behintzat. (Oharra: *Esaten dutenez + omen*, txarto)

SINONIMOAK (Erantzun-ereduak)

Hemen ageri ez den sinonimoren bat ontzat emateko zalantza izanez gero, jarri ohar bat neurketa-fitxan.

- | | |
|--|--|
| 1. preuari : maiorazgoari, oinordekoari... | 5. bidezkoa : zuzena, legezkoa, justua... |
| 2. irmoenak : tinkoenak, finkoenak, sendoenak, zindoenak... | 6. labainka : irristaka, zirristaka... |
| 3. aditua : jakituna, jakintsua, jantzia... | 7. txintik : tutik, fitsik... |
| 4. antza : dirudienez, itxuraz, agi denez, nonbait... | 8. topatzen : aurkitzen, kausitzen... |
| | 9. zendu : hil |
| | 10. Ezbaian : zalantzan, dudatan, enuraz... |

IRAKURMENA

A eredua	1 D	2 A	3 C	4 B	5 A
	6 A	7 C	8 B	9 C	10 D